

Josean Urkia Zuloaga

*Eibar,
Gipuzkoa
(1965)*

Aurkibidea

Biografia



Jose Andres (Josean) Urkia Zuloaga Eibarren jaio zen 1965ean. Azitainen eman du bizitza guztia eta Andra Mariko parrokiarekin eta auzoko jaiekin lotura handia izan du betidanik. "Eibarko Ermitak" proiektuan parte hartu zuen, auzoko elizari, jaiei eta Felix Bergara abadeari buruzko kontuez hitz eginez.

Zintak

EIB-703

- **Proiektua:** Eibarko ermitak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Esti - Sapsootham, Itziar
- **Data:** 2020-11-18
- **Iraupena:** 81 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Azitaingo auzotarra

- **Erref:** EIB-703/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:01:57. **Bukatu:** 00:03:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Harreman zuzena izan dute berak eta bere familiak Azitaingo parrokiarekin eta Felix Bergara abadearekin. Azitain auzoan pasatu du Joseanek ume eta gazte denbora.

2. Azitaingo jaiak I: San Anton, Andramariak eta irailekoak

- **Erref:** EIB-703/004
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:03:15. **Bukatu:** 00:07:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Gaztea zelarrik hasi zen Josean Azitaingo jaien antolakuntzan. Hiru jai ospatzen ziren urtean zehar. Urtarrilean San Anton eguna ospatzen zen. Gerra aurretik ospatzen zen eta, nahiz eta gero galdu, Felix Bergara abadeak ohitura berreskuratu zuen. Abuztuan Andramariaren jaiak ospatzen dira. Irailean, Andramarien errepikapena egiten da. Auzoan bizi ziren kanpotarrek eskatuta hasi ziren iraileko jaiak, abuztuan euren herrietara joaten zirelako. Oso jai indartsuak bilakatu ziren.

3. San Anton jaia Azitainen

- **Erref:** EIB-703/005
- **Iraupena:** 0:05:38. **Hasi:** 00:07:36. **Bukatu:** 00:13:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

San Anton jaia egun bakarrean ospatzen zen. Meza ostean, abadeak jendeak eramandako animaliak eta landareak bedeinkatzen zituen. Animalia-aren bat eta baserritarrek eramandako saski bat zozketatzen zuten. Aspaldi, auzoko lantegiek eguerdira arte bakarrik lan egiten zuten eta ugazabek Azintaingo langileak bazkaltzera gonbidatzen zituzten.

4. San Anton jaia eta Azitaingo lantegiak

- **Erref:** EIB-703/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:13:37. **Bukatu:** 00:14:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

San Anton egunean auzoko lantegietako ugazabek langileak bixigua jatera gonbidatzen zituzten. Auzoko tabernetan poteoa egiten zen (Bar Donosti, Gure Kaiola...) eta hurrengo egunean ere jai izaten zuten langileek.

5. Azintaingo parrokiako batzordeak

- **Erref:** EIB-703/008
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:14:45. **Bukatu:** 00:18:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzoko arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Azitaingo parrokiak batzorde ezberdinak izan ditu: jai-batzordea, diruzaintza, obra edo lanen batzordea, akolito taldea... Jai-batzordean, kide ez zirenek ere parte hartzen zuten. San Anton jaia antolatzea errazagoa zen, betikoak biltzen zirelako.

6. Azitaingo jaiak II: elizarekin lotura

- **Erref:** EIB-703/009
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:18:31. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Azitaingo iraileko jaietan elizak ez zuen parterik hartzen. Francoren heriotza eta gero sortu ziren jaiak. San Anton eta Andramariaren jaiak, elizarekin lotura zuzena daukate. Eibarko auzo guztietan egiten ziren jaiak: Azitainen, Amañan, Estaziño kalean, Urkin, San Kristobalen, Ipuruan...

7. Azitaingo jaiak III: Diru-bilketa

- **Erref:** EIB-703/010
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:26:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Jai guztietan dirua biltzen zen eta horrekin zer egiten zuten kontatzen du Joseanek. San Anton jaietan, txapela pasatuz borondatea jaso eta diru hori elizako gauzetarako uzten zen. Andramarietan jasotakoaren parte bat elizarako geratzen zen eta bestea hurrengo jaiak antolatzeko. Irailekoetan diru asko mugitzen zen eta diru-laguntza jasotzen zuten Udaletik. Eguraldiaren arabera diru gehiago edo gutxiago batzen zuten. Festen amaieran, jai-batzordeak bazkari herrikoi bat antolatzen zuten Azitaingo jatetxean.</p>

8. Azitaingo jaiak antolatzeko diru-bilketa

- **Erref:** EIB-703/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:26:07. **Bukatu:** 00:27:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

Etixerik etxe eta baserriz baserri joaten ziren diru-laguntza eske Azitaingo irailako jaiak antolatzeko. Bakoitzak ahal zuena ematen zuten.

9. Eliza, jaiak eta politika

- **Erref:** EIB-703/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:27:52. **Bukatu:** 00:29:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Azitaingo auzotar batzuek ez zuten begi onez ikusten, jaietan, garaiko egoera politikoa salatzen zuten kartelak jartzea. Felix Bergara abadearen sermoiak politikoak eta errealitatearekin lotutakoak izaten ziren.

10. Kontzertuak, erromeriak eta ligoteoa

- **Erref:** EIB-703/013
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:29:43. **Bukatu:** 00:32:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Iraileko jaietan ligoteo eta haserreak egoten ziren. Garai batean Arrazola baserrian erromeria egoten zen. Taberna eta bolatokia jartzen zituzten eta jende asko biltzen omen zen.

11. Azitaingo jaiak antolatzeko jende asko mugitzen zen

- **Erref:** EIB-703/014
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Azitaingo auzotarrak ez ziren eibartarrak ere inplikatzeko ziren iraileko jaien antolaketan. Behin, auto batekin Eibartik bueltaka ibili ziren, bozgorailu bidez jaien berri ematen.

12. San Anton egunean tonbola eta Andramarietan dantza-txapelketa

- **Erref:** EIB-703/015
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>San Anton eguna baino egun batzuk lehenagotik "rifak" saltzen zituzten eta jai egunean tonbola egoten zen. Saria: animalia bat eta barazkiak. Andramarietan dantza-txapelketa antolatzen zen eta aurreko urteetako txapeldunak deitzen zituzten.</p>

13. Azitain parrokiako Ion Etxabe abadea

- **Erref:** EIB-703/016
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:36:16. **Bukatu:** 00:38:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Ion Etxabe abadea kartzelan egon zen politika kontuak zirela eta. Aske geratzean, omenaldia egin zitzaion auzoan.

14. Felix Bergara abadea

- **Erref:** EIB-703/017
- **Iraupena:** 0:05:23. **Hasi:** 00:38:13. **Bukatu:** 00:43:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>1969an Felix Bergara izendatu zuten Azitaingo abade. BH lantegiko langile-ohia izanda, bokazio erlijiosoa nola heldu zitzaion kontatzen du Joseanek. 2009an omenaldia egin zitzaion Arrateko Kantabria jatetxean. Felix Bergara 2013an hil zen eta geroztik Azitaingo parrokiako ekimen asko galdu dira.</p>

15. Felix Bergara abadea ez zen denen gustukoa

- **Erref:** EIB-703/018
- **Iraupena:** 0:07:00. **Hasi:** 00:43:36. **Bukatu:** 00:50:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Azitaingo parrokiako eliztar batzuek ez zuten begi onez ikusten Felix Bergarak bere sermoietan erlijioa eta politika uztartzea. Bere sermoiak beti uneko egoerarekin lotzen zituen (politika, gatazka, miseria...). Dirudunen aberastasunarekin oso kritikoa zen. Espetxean egon zen eta bere autoari su eman zioten behin.</p>

16. Azitaingo eta Mendaroko gazteak elkarrekin

- **Erref:** EIB-703/020
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:53:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Mendaroko Don Angel Barrenetxea "Donal" eta Felix Bergara abadeek harreman oso zuzena zuten, bi herrietako gazteentzat ekintzak antolatzen zituzten: egunpasak, diskoteka eliza barruan, futbol txapelketak, manifestazioetarako autobusak...</p>

17. Felix Bergara abadearen eskuzabaltasuna

- **Erref:** EIB-703/021
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:53:32. **Bukatu:** 00:55:26

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Nahiz eta Santa Ageda eguneko eskea ohitura paganoa izan, Felix Bergara abadea ere inplikatzan zen. Dirua, Azitain auzoko txiroenei ematen zitzaian. Joseanen ustetan, Felix Bergara jendeari laguntzeko sartu zen abadetzara.</p>

18. Azitaingo Behetarrak Auzo Elkarte

- **Erref:** EIB-703/022
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:55:26. **Bukatu:** 00:57:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Azitaingo gazteek eta Felix Bergara abadeak "Behetarrak Auzo Elkarte" sortu zuten, Udalari eta bestelako erakunde publikoei eskaera formalak egiteko. Denetariko eskaerak egiten zituzten eta Felix Bergara zen alde batetik bestera mugitzen zena.</p>

Transkripzioa

- Behetarrak... ko... Bai, elkarte hori berak beste hiru-laukin batera sortu gendun, ba, pixkat ez zoskuelako kasorik eitten udaletxian, sobretodo, edo diputaziñuan edo juaten giñan tokixetan, ibili giñanian kanposantu horren billa... Karo, gu giñan batzorde bat elixiak lotuta, buff... barre eitten otsuen. Juaten ziñan ta "esto de cristianos de Acitain -edo ez dakit zer izango giñan orduan-... buff... ya vienen aquí estos", atia itxi ta. Orduan, sortu zan hor Behetarrak Auzo Elkarte, registro zenbakixakin eta ganoraz einda eta, orduan, gu gure registro izenarekin-eta giñan, ba, erakunde bat. Orduan ee... Aurora Baskaranekin orduan, gero Iñaki Arriolakin ta Miguel De Los Toyosekin gitxio, porke ya ordurako ya desinflau giñan, baiña sobretodo Iñaki Arriolakin oso billera potentiak eukittakuak izan gara, ba, danekin lotuta: auzoko... gauza urbanistikuekin, rotondak, espaloiak, basarriko bidiak, argittasunak, alumbrauak, alkantarillauak, Murrategirako asfaltua... Horrek danok elkarte horren lorpenak izan dia...

- [...]

- Baiña artista hau, ba, hor egon dalako. Ta gero, ba, hor ibiltzen giñan hiru-lau, ba, pixkat ba... ambientia gustatzen jakunoki, ez? Ibiltzen giñan hor, ba... bai. Eta bai, hori oso inportantia da. Bai, horrek azkenengo... bueno azkenengua, baiña bai igual bi milla ta hamabostetik... [aurretik]... hamahiruan hil zan, ba, handik bi urtian ibili giñan inerziakin, baiña gero ya, ba, bueno, nabaritzen zan bera.. bere falta asko. Bai. Denporia be beti euki dau. Karo, azkenian bestiok ez genkauna, ba... gu lanetik urtetzen genduan ta jasotzen genduzen ardurak, baiña e ez genkaun denporia hara edo hona mobitzeko, ta bera Donostiara edo hara edo... askatasuna ekan. Nahi genduan tokixetara juteko bera arduratzen zan ta hori zan...

- [Diferentia]...

- Bai, baiña bueno.

19. Joseanek Azitaingo parrokian meza eman zuenekoa

- **Erref:** EIB-703/023
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:57:51. **Bukatu:** 01:00:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

San Fermin egun batean, Joseanek meza eman zuen Azitaingo parrokian. Lagunak, lankideak eta auzoko jende asko batu zen. Umetan akolitu bezala ibili zen.

20. Felix Bergara abadearengandik ikasitakoa

- **Erref:** EIB-703/024
- **Iraupena:** 0:06:12. **Hasi:** 01:00:09. **Bukatu:** 01:06:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Joseanek Felix Bergara abadearengandik ikasitakoak kontatzen ditu: ekimena eta inplikazioa, elkartasuna, zuzena izatea baina batzuetan barkamenik ez ematea...

21. Azitain parrokiako bizar gabeko kristoaren irudia

- **Erref:** EIB-703/026
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:07:16. **Bukatu:** 01:09:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Azitaingo parrokiako bizar gabeko kristoaren irudia nola aurkitu eta berreskuratu zuten azaltzen du Joseanek.

22. Hitz bereziak Felix Bergara abadearen omenez

- **Erref:** EIB-703/027
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 01:09:45. **Bukatu:** 01:11:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Joseanek hitz polit batzuk irakurtzen ditu Felix Bergara abadearen omenez. Euskal Herriarekiko enpatia handia zuen Felixek eta historiaz asko transmititu zien Azitaingo eliztar guztiei.

23. Felix Bergara abadea, "Herria 2000"ko kide

- **Erref:** EIB-703/028
- **Iraupena:** 0:04:59. **Hasi:** 01:11:40. **Bukatu:** 01:16:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Felix Bergara abadea "Herria 2000" plataformako kide izan zen. Joseanek horren inguruko bere ikuspegia ematen du.

24. Umetan, Azitaingo parrokiaren lapurreta txikiak egiten

- **Erref:** EIB-703/030
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 01:18:05. **Bukatu:** 01:19:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Umetan, Azitaingo parrokiako mezetarako ostia ("gure jainkoa") handiak lapurtzen zituzten, bata bestearen gainera igota.</p>

25. Felix Bergararen heriotza

- **Erref:** EIB-703/032
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:20:06. **Bukatu:** 01:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Felix Bergara abadearen errautsak Iparraldean bota zituzten, Felixek horrela idatzita utzi zuelako. Felixen hileta nolakoa izan zen gogoratzen du Joseanek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com